

## UNIBERTSITATEA-ENPRESA-GIZARTEA PROIEKTUAK 2019

### ***Ebaluaziorako onartutako eta baztertutako eskaeren behin betiko bigarren zerrenda***

Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak (IGBB) oniritzia emanda, eta Gobernu Kontseiluak onartu ondoren, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak (aurrerantzean IAE) Unibertsitatea-Enpresa-Gizartea proiektuen deialdia (2019) argitaratzea erabaki zuen.

Behin eskaerak aurkezteko epea amaituta, IAEk aurkeztutako eskaerak berrikusi zituen.

Tramite horrekin amaitutakoan, onartutako eta baztertutako eskaeren behin-behineko zerrenda argitaratu zen IAEren webgunean, zuzenketak egin behar zituzten eskaerak zehaztu ere.

Zuzenketak egiteko epea amaituta, IAEk ERABAKI DU onartutako eta baztertutako eskaeren behin betiko bigarren zerrenda bere webgunean argitaratzea, ebaluazio fasera igarotze aldera.

Erabaki honek administrazio bidea agortzen du eta honako bide hauek daude beraren kontra egiteko, inola ere aldi berean erabilita:

1.- Lehenengo eta behin, aukerako berraztertze errekurtsua aurkez dakioke erabakia eman duen organoari berari hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Administrazioarekiko errekurtsu hau jarriz gero, eta errekurtsua jarri eta hilabeteko epean erabaki adierazirik jaso ezean, errekurtsua ezetsi dela ulertu beharko da administrazioaren isiltasunagatik; eta, honela gertatuz gero, datorren idatz zatian ezarritako auzibidera jotzeko aukera izango da.

Kasu horretan, administrazioarekiko auzi errekurtsua jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, errekurtsua ezetsizat joa izan den egunaren biharamunetik kontatzen hasita (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 40/2015 legea eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 legea).

2.- Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke Bilboko administrazio auzietako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dago, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 legearen 8.3 eta 46. artikulua).

Leioan, 2019ko maiatzaren 16an.

**IKERKETAKO DEIALDIEN ATALA**  
Ikerketaren arloko Errektoreordetza

<b>ONARTUAK</b>	
<b>IKERTZAILE NAGUSIA</b>	<b>KODEA</b>
72486293E	US19/09